

OSAKIDETZAREN AURKEZPENA

Langileen ordezkariok sektore-mahaira deitzeko 9 hilabetetan hainbat aldiz eskatu ondoren, Osakidetza esan digu "2016ko negoziazio-aldia hasita dagoela". Azken 9 hilabete hauetan zenbait aparataje eta jardunaldi inauguratzen aritu dira, prentsan Osasun Sailaren eta Osakidetzaren asmoak ager daitezen. Eta orain, guri ezer kontsultatu gabe, irteteko tiroa jaurti dute.

Bestalde, argi utzi dute mahai orokorrean aurkeztutakotik ateratzeko batere negoziazio-tarterik ez dutela, lerro hori gainditzeko asmorik ez dutela. Hori dela-eta, mahaira ekarriko dituzten "negoziazio" proposamenen artean hauexek daude: lanaldia, %1eko soldata-igoera, eta zahar-egunak itzultzea. Puntu horiek aurkeztu dituzte mahaian eta komunikabideetan eskaintza gisa, baina negoziazorako benetako tarterik utzi gabe.

Negoziazio-egutegiaren lehenengo eguna martxoaren 2a izango da, baina txiripaz-edo egun horretan mahaiko sindikatu guztiok eta ESKk elkarretaratzea izango dugu Donostiako Ospitalean, lan-eskubideak berreskuratzearen alde. Eguna aldatzeko eskatu dugu, eta Osakidetza erantzun digu beste egun bat proposatuko digula.

Osakidetza baikor dagoela dio, mahaian ikusmoldeak elkartuko direlakoan, eta hortaz martxoa baino lehen hirugarren bilera bat egitea proposatu du. Eta negoziazio-aldia irekitzean 2016ko negoziazioak hasiko direla esan dutenez, 2016ko martxoa izango dute buruan, ezta?

Dokumentu bat banatu digute, non 14 proposamen agertzen diren, eta informazioa heldu ahala arian-arian dokumentu gehiago banatuko digutela esan digute.

14 proposameneko dokumentua irakurri dute, puntu batzuetan azalpen gehiago emanez, eta besteetan irakurri baino ez.

1. SOLDATA-IGOERA.
2. URTEKO LANALDIA.
3. ANTZINATASUN-EGUNAK.
4. LIZENTZIAK ETA BAIMENAK.
5. LANPOSTUAK ALDI BATERAKO BETETZEA.
6. ALDI BATERAKO KONTRATAZIOA.
7. BEHIN BETIKO BARNE-MUGIKORTASUNA (**ZIRRIBORRORIK BANATU BARIK**).
8. 2016 LEKUALDATZE-LEHIAKETA.

Aurreko mahai-bileretan beti egon dira ados lekualdatze-lehiaketa azkar, ireki eta iraunkorra egitearekin; orain, ordea, pauso bat atzera eman dute, eta EPE-deialdiekin batera eta haietako

bakoitzaren plaza-kopuruari doituz egin nahi dute. Bazter utziko dituzte, beraz, kategorია asko, EPERik eta lekualdatze-lehiaketarik gabe egon direnak, eta norberaren bizilekura hurbiltzeko aukerarik gabe geratu direnak.

9. 2016 PLANTILLA UGALTZEA/FINKATZEA.

Aurkezturiko dokumentuan adierazten den plantilla ugaltzeaz gain —350 profesional Urdulizko Ospitalerako—, gehitu digute, ospitale horretako plantilla osatzeko, pertsonal beteranoa eta zerrendetatik etorriko dena elkartuko dutela. Gainera, postuak betetzeko proposamena egitean, Urdulizko Ospitalea ez ezik, gainerako zerbitzu-antolakundeak ere izan dituztela buruan esan dute.

10. ORDEZPENAK BETETZEA.

11. EUSKALDUNTZEA.

Euskararen “aparteko” proba dela-eta, Osakidetzak dio proba arrunta dela, baina ordena aldatuta. Ahozko proba egin ostean, eta euskaraz aritzeko gai den pertsonala bereizi ondoren, proba idatzi bat egingo zaie, bigarren proba bat egiteko aukera emanez. Lehenengo proba idatziaren ostean, Osakidetzak prestakuntza-laguntza eskainiko dio, bigarren probara aurkeztu baino lehen. Hori Osakidetzak ez du idatziz jasota utzi mahaira ekarritako dokumentuetan. Deialdia pertsonal FINKOarentzat pentsaturik dago. Osakidetzak dioenez, hasiera batean pertsonal finkoarentzat izango da, eta gero aztertuko da pertsonal ez finkoari luzatzeko aukera.

12. NAHITAEZKO MUGIKORTASUNARI BURUZKO AKORDIOA (Osakidetzak **EZ DU BERRIRO ZIRRIBORRORIK AURKEZTU**).

13. HAUTESKUNDE-ESPARRU BERRIAK.

14. 2016 ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA.

Sailburuak bere inaugurazioetan lau haizeetara iragarri duen 2016-EPERako deialdi horretan %100 birjarpen-tasaraino iritsiko da. Egoera aztertzen omen dira, eta 900 plaza inguru eskainiko dute birjarpenerako, eta seguru aski beste batzuk eskainiko dituzte barne-sustapenerako, baina oraindik ez dago zehazturik. 2016-EPEak bereziki hartuko ditu 2014-2015 EPEan hartu ez ziren kategoriak, eta soberako plazarik geratuz gero, 2014-2015 EPEko kategoriekin osatuko dira. Osakidetzaren arabera, Estatuko arauteriaren aginduz, urteko deialdia egin behar dutela, plaza horiek ez galtzeko; osterantzean, ezin izango lituzkete atera. Edonola ere, prozesua 2017an egingo da, eta ziurrenera, 2016ko plazak eta 2017koak metatuko dira.

Laster batean jarraibide batzuk ekarriko dizkigute (negoziazteko?) euskarari buruz, aldi baterako ezintasunei buruz...

ELA

Osakidetzaren 2016ko negoziazioei dagokienez, galdetu dugu ea oraingo bilera honetan, edo proposatu diren hurrengo bietan, eztabaidatuko diren Osakidetzaren puntu guztiak, ea puntuak bileretan banatuko diren, eta ea bilerak egin baino lehenago dokumentazioa bidaliko duten, aztertzeko denbora nahikoa izateko.

Deigarria da Osakidetzaren 2016ko negoziaziorako 14 proposamenen artean ez agertzea Lanbide Garapeneko 2011 Deialdia, ezta Urdulizko Ospitalearen irekiera ere; are deigarriagoa da kontuan hartzen badugu ospitalearen antolamendua eta egitura negoziatzeko berariazko bilera bat eskatu dela. Oso harrigarria da guretzat ikustea nola Osakidetzak, negoziatzeko asmoak dituela esaten duen bitartean, profesionali zerbitzu-antolakundez aldatzeko ebazpenak igortzen dizkiela, aurretiaz negoziatu gabe (Gurutzetako pertsonala —Uribeko anbulatorioetan kokatua— Uribe-ESlra lekualdatu dute nahitaez), Horregatik, guk auzibidera jotzeko eskubidea gordetzen dugu. Orain dela bi hilabete esan ziguten informazioa emango zigutela, baina orain alde bakar batetik gauzatzen dituzte erabakiak.

Bizkaian Urdulizko Ospitaleari buruz hitz egiteko eskatu genituen batzar-orduak ukatu zizkiguten, eta hori salatzen dugu. Jakitera izan dugu, halaber, Urdulizko aurreikuspenei buruz eta prozedurari buruz analisi bat egiten ari dela, hala aipatu baita legebiltzarrean. Analisi horren berri jakin nahiko genuke mahai honetan, behar bezala.

1. SOLDATA-IGOERA.

Osakidetzaren 2016ko negoziazioaren eskaintzaren hiru puntuak ez dira negoziatuko, zeren %1eko soldata-igoera ba omen dago erabakita, urtarrileko nominan aplikatu baitira; horregatik soldata-taula eguneratuak guri emateko eskatzen dugu, eta prentsaren aurrean zabaldu duten negoziazioarena faltsua dela salatzen dugu.

2. URTEKO LANALDIA.

Urteko lanaldia negoziatzeko tarterik ez dagoela esan arren, guk uste dugu lanaldia aplikatzeko modua negoziatu daitekeela. Zentro eta antolakunde askotan aurreko lanaldian oinarrituriko karteldegia dituzte (1614'5 ordu), eta jakin nahi dugu zer tarte geratzen den antolakundeetan aurreko lanaldia berreskuratzeko, unitateetan zer aldi karteldegi berriak negoziatzeko, eta negoziazio-aldiak zer eragin izango duen karteldegietan, haiek doitzeko eta profesionalen oporrak entregatzeko. Gainera, 1592 orduko lanaldia berreskuratzearekin batera enplegua sortuko da, baina jakin beharrekoa da non sortuko den eta nola sortuko den.

3. ZAHAR-EGUNAK.

2016ko dekretuaren zain gauden bitartean jakin nahi dugu ea Osakidetza eta Eusko Jaurlaritza jabetu diren zenbateko gastua ekarriko diguten zergadunoi 2015eko zahar-egunei buruz etortzeko diren epaiketa guztiek. Oso litekeena da epaiketa horiek guztiak Osakidetzak galtzea. Horregatik uste dugu

askoz zentzuzkoagoa dela erabakia negoziazio-mahai batean hartzea, epaitegi batean baino.

4. LIZENTZIAK ETA BAIMENAK.

Horren gaineko dokumentazioa esku artean izango dugunean egingo ditugu gure ekarpenak eta alegazioak.

5. LANPOSTUAK ALDI BATERAKO BETETZEA.

Esan beharrekoa da Osakidetzaren eskaintzak, postu hutsak betetzekoak, ez duela zerikusirik 2000. urtean adostutakoarekin. Eta gure ustez kontratazio-akordioa eta postu hutsak betetzeko hurrenkera loturik joan behar dira, baldin eta bermatu beharreko helburuak gardentasuna, demokratikoa izatea eta lanpostu huts guztiak benetan betetzea badira. Mahai gainean jarri den akordioa ez da baliozkoa sistema azkarra izateko, ezta eguneroko arazoak konpontzeko ere. Lanpostu hutsen hurrenkera horretan ez dugu ikusten beharrezkoa denik aldi baterako mugikortasuna sartzeara. Plantilla egiturazkoa eta funtzionala eskatzen dugu berriz ere, negoziazioan fede onaz jokatzeko delako erakusgarri.

6. ALDI BATERAKO KONTRATAZIOA.

Osakidetzak proposatu duen kontratazio-zirriborroari begira, 2011-EPEarekin bizi genuen egoera berriro salatuko dugu. Osakidetzak sindikatuei leporatu die joko-arauak aldatzeko negoziazioa, behin 2014-2015 EPEaren emaitzak ezagutu ondoren. Baina, gogoratu behar dugu arauak aldeztu aurretik negoziatu behar direla. Dena dela, kontratazioetan erabateko gardentasuna izan ezean, ELAren ez da izango akordio egiterik. Hurrengo EPEari dagokionez, Osakidetzak aurkeztu duen zirriborroari gure alegazioak egiten ditugu, eta gure afiliatuekin gogoeta egin ostean, gure jarrera honelakoa izango da: kontratazioan lehentasuna ematea azken hautaketa-prozesua gainditu dutenei, aurkeztu ez dutenen eta gainditu ez dutenen aurretik. Erizainen eta erizain-laguntzaileen berriazko zerrenden proposamena dela-eta, guk ez ditugu zerrenda horiek onartzen. Erizainen kasuan, gure iritziz espezialitateak daude, eta bultzatu eta indartu behar dira EIRen eskaintzetik hasi eta postu funtzionaletan amaitzeraino.

7. BEHIN BETIKO BARNE-MUGIKORTASUNA (**ZIRRIBORRORIK BANATU BARIK**).

8. 2016ko LEKUALDATZE-LEHIAKETA.

Lekualdatze-lehiaketaren proposamen berria atzerapauso bat da. Batetik, plaza-kopurua lotzen bada EPEen bidez eskaintzen direnekin, lekualdatze-lehiaketaren deialdi ireki eta iraunkorrak egiteko asmoan atzera egingo dugu. Eta bestetik, guk eskatzen ditugun lekualdatze-lehiaketak, LANPOSTU HUTS ETA KATEGORIA GUZTIAK hartuko dituztenak dira. Ez dago hori eragozten duen legerik, borondate hutsa

da. Laborategiko teknikariekin gertatutakoa onartezina da, ezin da jendea bidali bizilekutik urrutira lan egitera, baldin eta inguruetan lanpostu hutsak badaude.

9. 2016 PLANTILLA UGALTZEA/FINKATZEA.

Plantilla 350 lanpostuz ugaltzeko eskaintza urria delakoan gaude, baina balioespen zehatzik egitea zaila da Osakidetzaaren plantilla funtzionala eta egiturazkoa oraindik esku artean izan barik. Dokumentu hori eskuratu ondoren, esan ahal izango dugu zenbat gehiago ugaltzea beharko den plantilla. Dena dela, legebiltzarrean 2015eko maiatzean aurkezturiko datuen arabera enplegu ezkutuko 4600 lanpostu daude, hortaz ugaltzeko dagoen tarte zabala da.

10. ORDEZPENAK BETETZEA.

Ordezpenak egiteko irizpideari dagokionez, mahaiak azken bileraren jarrera bera du, eta hortaz gure ikuspuntua gogoratu behar dugu: herritarrei kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko, lehen egunetik ordeztu behar da kategoria guztietan.

11. EUSKALDUNTZEA.

Eskaini duten proposamena ez da batere ausarta, gure ustez beste antolakunde batzuen eraginez egin da egin den moduan. Euskarak Osakidetza duen problematika sakonagoa da, Osakidetza orain arte eman dituen pausoak laburregiak izan dira. Gainera, gogoeta sakon bat egin beharko zen hizkuntza-eskakizunen egiaztapenei buruz, eta erabiltzaileekin eta langileen artean komunikazio elebiduna izateko benetako beharrianari buruz. Zenbait profesionalen kasuan, egunero euskaraz lan egiteko gauza direla onartzen da, eta gero ezin dute HE gainditu; zerbait ez dago ondo analisi horretan.

Ez zaigu ondo iruditzen “aukera” hori ez onartzea ordezkoez; ezta 1-HE egiaztatzea eskatzen zaienentzat bestelako irtenbideren bat ez proposatzea ere.

Azterketetan “gutxiegi” bi aldiz atera dutenei prestakuntza emateko asmoari ondo deritzogu, baina dokumentu batean jasota ikusi arte ez gara fidatuko, negoziazio-mahaietan horrelako gauzak kontatzen dizkigute, eta gero egintzak oso bestelakoak izaten dira.

Halaber, martxoako Euskararen Plataforma oso bat aurkeztuko dugula iragartzen dugu. Plataforma horretan Osakidetza euskalduntzeko proposamen zehatzak jasoko ditugu, euskalduntzearen zama guztia langileei ez leporatzeko. Bide batez errepikatuko dugu ez gatozela bat prozesua eramateko moduarekin.

12. NAHITAEZKO MUGIKORTASUNARI BURUZKO AKORDIOA (Osakidetza **EZ DU BERRIRO ZIRIBORRORIK AURKEZTU**).

13. HAUTESKUNDE-ESPARRU BERRIAK

Ez dugu ulertzen aintzat ez hartzea sindikatu guztiok aho batez erabaki genuen proposamena, ELAk aho batezko proposamen horri eusten dio. Sindikatuok aurkeztu genuen proposamena, lantokietako ordezkaritzarik benetako enaren eta hurbilenaren emaitza da, eta Osakidetza-ren proposamenean ez da islatzen hurbiltasun hori. Enpresa-batzordeak elkartzeko arazo teknikoak baldin badaude, eta Lan Ordezkaritzari txosten bat eskatu bazaio, horren berri jakin nahi dugu mahai honetan.

14. 2016 EPE

Poztu gara mahai honetan azkenean EPEa ikusteagatik, nahiz eta komunikabideetatik jakitera izan, sailburuak inaugurazioetan aldarrikatzen duelako. EPE hori negoziatzeko asmoa badago, lehenengo hona ekarri behar da, eta gero komunikabideetan aditzera eman; baina irudi onaren asmoa bakarrik badago... Gure ustez 900 posturen eskaintzarekin ezinezkoa da Osakidetza-ren behin-behinekotasunaren tasa izugarria jaitea. Ateratzeko den EPE horrek nolako eragina izango duen 2014-2015 EPEko kategorietan jakin nahi dugu, eta baita EPE guztiek nolako eragina izango duten kontratazio-politsetan ere.

OSAKIDETZA

Negoiazioen egutegia itxi nahi duela dio, 2011ko Lanbide Garapenaren deialdiaz berriro hitz egiteko prest dagoela dio; baina iaz eskaini zuen bidea iazko aurrekontuen konturakoa zela, beraz aukera hura 12 kanpai-hotsak entzun ondoren hegaka joan zela.

Urdulizko Ospitalea dela-eta, planteamendu desberdinak aurkezteko prest daudela diote, aurkezturiko plantilla ugaltzeaz aparte.

Soldata-taula eguneratuak gaur arratsaldean bertan edo biharamunean bidaliko dizkigula diote (**baina ez dugu ezer jaso**).

Gainerako eskubide galduak: ITZARRI, 2012ko aparteko ordainsaria, zahar-egunak... mahai orokorraren esparruan jarraituko dutela errepikatu dute.

Halaber, euskararen aparteko probarako prestakuntza-plana mahaira ekarriko dutela diote, eta saiakera hori ordezkari pertsonalera zabaltzeko aukera ere aztertuko dutela.

Era berean, behin-behinekotasuna murrizteko planteamendu bat ekartzeko asmoa dutela esan digute.

Lizentziak eta baimenak jasotzen dituzten artikulak berriro negoziatu beharrean, lan-baldintzen akordioa osotasunean negoziatzeko eskariari erantzunez Osakidetza esan digu ez dela une egokia horri ekiteko.

GALDE-ESKEEN TXANDA

ELA

Osakidetzak Lanbide Garapenaren 2015eko deialdiaren ebazpena amaitutzat jotzea maiseatzen dugu, Osakidetza bera izan baita iazko maiatzetik ezein negoziazio-mahaitan esertzeari uko egin diona.

Urdulizko informazio-bilerari dagokionez, bilera hartan esana zen hau: egin beharreko jardueri buruz zalantzaren bat geratzen bazen, mahaian galdetuko zela, baina ez da horrela gertatu.

Osakidetzaren hizkuntza-eskakizunen inguruko arazoak aztertu eta konpontzeari begira, ez dugu ulertzen zergatik ez den egiten analisisa eta egokitzapena. Hezkuntzan edo Ertzaintzan egiaztatze-irizpide propioak dituzte.

Sindikatu medikoak, 2012ko lekualdatze-lehiaketari buruz, irabazi duen epaia dela-eta, epaileak dioen bezala aplikatu behar badute, ados; baina aplikazioa negoziatzeko asmoa badute, negoziatio-mahaian negoziatu behar dela, eta ez bi alderdiren artean. Osakidetzak dio "atzorako" aplikatzen dela.

Osakidetzaren antolakunde guztietan 2015. urtean egin den behin-behineko kontratazioari buruzko txosten bat eskatu genuen, legebiltzarrean aurkeztu den bezalakoa. Informazio hori guri entregatu ezean, Osakidetza demandatuko dugu, negoziatiorako funtsezkoa den informazioa ezkutatzeagatik.

Preskripzio Dekretuaren gainean otsailaren 19an egin behar den informazio-bilera dela-eta, guk ez dugu informaziorik nahi, negoziatioa baizik. Osakidetzak azken urteotan aginduka jardun du kategoriei eginkizunak gehituz edo aldatuz, eta bada garaia horrelako aldaketak mahaian negoziatzeko, "lan-baldintzak nabarmen aldatzea" delakoan. Idatziz eskatu dugu Osakidetzaren erantzukizun zibilaren aseguru-polizaren kopia bat. Guk daukagun azken poliza 1994 urtekoa da, eta hor argi eta garbi esaten da ez direla polizaren estalduran sartzen legez babesturik ez dauden pertsonalaren eginkizunak. Aipaturiko Dekretuak dakarren lan-kargaren gehikuntza nola beteko den jakin nahi dugu, eta baita ea Osakidetzak aurreikuspen bat egin duen ere. Gure ustez hori guztia negoziatu behar da.

Mantelec-eko 16 langileen egoeraz galdetu dugu. Elektromedikuntzaren mantenimenduko zerbitzua ematen zuen enpresa aldatzean langile horiek subrogatiorako eskubidea zuten; baina, hala ere, kaleratu dituzte. Lehenengo, langile horiek subrogatu behar dira; bigarren, hori egin ezean, enpresarekin zuten kontratuaren izaera desberdina zelakoan, orduan Osakidetzaren Lan-baldintzen Akordioa ez dute betetzen, horren puntu bat zerbitzu gehiago ez pribatizatzea baitzen. Gogoratzen dugu 16 langile horiek subrogatiorako eskubidea dutela.

Azkenik, erizainen 15 postu eta erizain-laguntzaileen 14 postu Bilbao-Basurtu ESI-n suntsitu izana salatzen dugu. Erabaki hori ez da negoziatu sektore-mahaian. Zuzendaritza horrek, erabaki hori hartzeko, egin omen duen azterlana ikusi nahi dugu. Pertsonal horrekin indartu beharko lirateke beste antolakunde-atal batzuk, haietako askotan lan-karga handiegiak baitaude, eta ezin hobeto letorkiekie laguntza hori. Osakidetzak erantzun du negoziatio-foroa dagokion batza dela, baina erabaki hori

aurretiaz Osasunaren sektore-mahaian negoziatu behar da —eta hala jasota dago hainbat epaitan—; hori horrela, badirudi ez dakitela zer gertatzen den antolakundean. Osakidetza kudeaketaren kontrol, koordinazio, laguntza eta exekuziorako sortu zuen antolakunde zentralaren lana uste izatekoaren azpitik dago.